

...elkarrizketa



Peio Iralur

• 'BAI GARA' ALDIZKARIKO
KIDEA •

«Abertzaleek
beren boza
agerrarazi behar
dute gai orotan»

Heldu den astean Baigorri eta Garazi eskualdeetako etxe guztietan banatuko da *Bai gara* aldizkari berria.

■ Zein da *Bai gara* izenaren arrazoia?

Bai, Baigorri bezala eta gara Garazi bezala. Izen horrek sinbolikoki erranahi handia du: herri bat gara, euskaldunak gara eta abertzaleak.

■ Zergatik atera duzue aldizkaria?

Beti eta gehiago, abertzaleek badute leku bat Iparaldeko bizian. Abertzaleek erregulari behar dute beren boza agerrarazi gai guztietan. Horregatik, gure kazetan gai asko agertzen dira. Gure iritzia emaiten dugu horietaz guziez.

■ Zerk eragin du Baigorriren eta Garaziren juntatzea?

Bada, jadanik errealitate bat. Garazi eta Baigorri, ekonomia aldetik, kasik elkarriz lotuak dira betidanik. Elkarrekilan badira super-sivom, PCD eta holakoak. Beraz, zuzen da behako orokor bat ukan dezagun, denek batean, Baigorri eta Garaziko arazoak buruz.

■ Autobidea da gai nagusietarik bat.

Pentsatzen dugu ondoko zenbakietan gai hori gehiago aztertuko dugula. Heldu den azaroaren 15ean delibero inportanteak hartuak izanen dira; uda honetaz baliatu behar dugu gogoeta zenbaiten egiteko.

Eneko Bidegain
BAIONA

...esaera

«Euskal kutxako altxorra? Euskara»

...hizpideak

Serbiarrentzat sosik ez Balkanen
Egonkortasunerako goi bileran

■ Balkanetan bakea finkatzeko goi bilerak Europako Batasunak Kolonian joan den hilean markatutako planari segitu dio, besterik gabe, Sarajevon. Bosniako hiriburuan Mendebaldeak eta erregio horretako estatuek onartu duten hitzarmenak eskualde hori baketzeko zutabeak finkatu ditu. Horiek xede baten inguruan labur litezke: erregioan merkatu ekonomia sustatu, horrela demokraziari laguntzeko. Hori dela eta, milaka milioi euro eman go zaizkie Kosovoko

gerran zuzenean edo zeharka kaltetuak izan diren herrialdeei. Europa Hego-ekialdearen Egonkortasunerako Itunak, hala ere, ez dio ezertxo ere emango Serbiari, Jugoslaviako lehendakari Slobodan Milosevicek boterean segitzen baitu. Errusiako Gobernuak neurri hori zigor ekonomikotzat jo eta arbuia egin du, «horrek geroan arazoak ekarriko baititu». Mendebaldeak bestelako iritzia azaldu du: jokaera horrek Slobodan Milosevic botatzeko balioko duela argudiatu du.

Bizi, ez
simulatu

■ Europako ikuskari parateatral zaharrena eta kasik bakarrena dugu pastorala, urtez urte herriarrek taularatu ohi dutena. Tradizioari eusten zaio, baina ez zentzugabeko erritual baten erreplikapen aldagaitz bat egiteko xedez, baizik eta tradizioa biziberritzeko eta aldatzeko. Tradizioa simulatu edo bizi ez baita gauza bera. Lehenak tradizioa museo bihurtzen du, eta bigarrenak tradizioa gaurkotu egiten du.

Haize berrien beharra
Udako Euskal Unibertsitatean

■ Udako Euskal Unibertsitatearen (UEU) ikastaroak atzo amaitu ziren Iruñean, eta aurtengo jardunaren balorazioa egin zuen zuzendaritzak. Miarrizteko eta Iruñeko ikastaroetan egindako lanaren inguruan balorazio ona egin zuten Mikel Aizpuruk eta bere taldeak, baina garai berrietara egokitu beharraz ere aritu ziren. Azken garaiotan euskarazko irakaskuntzan gertatu diren aldaketak ugarietara egokitu

Nahasmena
berriro

■ Brouard kasuko azken xelebrekeria gertatu zen atzo. Rodriguez Menendez abokatua defendatzaile izatetik akusatzaile izatera igaro zen. Kasua konplexua dela argi da aspalditik, baina gero eta nabarmenagoa da batzuek kasua nahasi baino ez dutela egin nahi, irtenbiderik gabeko labirinto bihurtzeraino. Horrelako gertaeren aurka helegiteak aurkeztuta daude, eta, beraz, nahasmena sortzeko trikimailuak nolabait eragotzi ahalko direla espero daiteke.

...pertsoneiak



IÑAKI RUIZ DE EGINO •

Donostiako Digitex Arte erakustokiak egile donostiar honen 50 artelanetik gora bildu ditu. Pinturak nahiz eskulturak jasotzen dira bilduman. Guztiek geometria dute ardatz.



RAFAEL RUIZ DE LA CUESTA •

Nafarroako Auzitegi Nagusiko presidente berriak aitortu du Justizia ez dabilela ondo inongo herrialde zibilizatutan. Nafarroako Entzutegiko buru ohiak hobekuntza materialak eskatu ditu.



IBRAHIM RUGOVA •

Kosovoko albaniarrek aukeratutako presidentea Kosovora itzuli da «behin-betiko». Iragan uztailearen 15ean Prishtinara bultatu zen lehen aldiz, baina berehala itzuli zen Erromara.

...datua

18.000 milioi pezetako inbertsioa egingen dute Barañainen El Corte Ingles eta Hipercor merkatari-tza gunek handiek.

...adierazpena

«Athleticek duen filosofiarekin txapelketa bat irabaztea baino gauza handiagorik ez dago»

Joseba Etxeberria
Futbol jokalaria

... seiko urrea

INAKI IBAZABALBEITIA

Hamaika ikusteko jaiok gara!

da eta— langileen ohiturak kontrolatzeari ekin diote eta industria berri indartsu bat sortu da EEBBetan: droga-testak egiteko enpresak.

Zenbait lanbidetan horrelakorik egitea uler daiteke eta, apika, beharrezkoa ere bada: hegazkin-pilotoen kasuan, adibidez. Baina, zein zentzu du horrelako praktika zabalteak gizarte-kontrola ez bada? Etikoki zuzena denetz atutzita, horrelako kontrolak



langiro desegokia sortzeko bidea dira, beldurra eta konfidantza-eza medio. Ebidentzia garbirik ba al dago porrua lantzean behin erretzen duen pertsona eskasagoa denik? Ez dirudi. Eta bestetik, droga-arazo larriak dituen pertsonari egin dakiokkeen kalterik handiena lana bat-batean galtzea da, arazoa gaintzeko atea ixten zaio eta.

Halaber, eta drogak kaltegarriak direla onarturik ere,

enpresak horrelako sokatik tiratzen hasten badira, non egongo da muga? Kontrolatzen hasita, enplegatuen asteburuetako tragoak kontrola daitezke, astelehenean zaldi urdina arrapaladan ibil ez dadin edota txuleta larregi jaten duten, kolesterolak hezurreri krisiak eragin baititzake edota putanerrik ba ote dagoen plantilan purgaziorik edo gaitz larriagorik harrapatzeko arriskua neurtzeko edota *besaulkibola* baino kirol arrisksuagorik egiten duten, ez dezaten orkatila bihurtu korrika dabiltzanean eta baja hartu...

Zentzugabea, ezta? Bada, argi ibili, gudanaino iristeak ez ninduke harririk eta.

Gaizki esanak barkatu. *The end.*